

LUBRIZOL PETROKIMIKA LEHERTU DA PARIS ONDOAN, ESKERRAK JACQUES CHIRAC EGUN BEREAN HIL DELA

Jacques Chirac lehendakari-ohiaren heriotzak estali du Paristik 80 kilometrora Rouen hirian gertatu den istripu kimiko izugarria: irailaren 26an autoentzako aditiboak ekoizten zituen Lubrizol konpainiaren usinak su hartu zuen, oso hurbil dauzkan hiritarrak ikaratu eta oraindik neurria hartu ez zaion kutsadura zabalduz inguruan. Kilometro askoko inguruko nekazariak harrapatu ditu kutsadurak: agintariek debekatu diete beren ekoizpenak kontsumitu edo merkaturatzea.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Lundi *Matin*-ek zera zioen urriaren lehenean bere webguneko titulu nagusian: “Lubrizol: gure erredaktorearen zati bat ihesi dabil. Atzerapean nozituko ditugu”. Ezker erradikaleko aldizkari frantses ezagunetakoa den hau tarteka behatzen duen irakurle bat baino gehiagori bururatuko zitzaion ea erredaktoreok poliziarekin arazo larriren bat ote zeukaten, hainbeste gai arantzatsuz idazten dute hain gordin... Ez zen hori.

“Joan den ostegunean [irailaren 26az ari da] gure komunikabidearen atal handi bat eskuetan daukaten kideak iratzarraziti zituzten Rouen hiriko Lubrizol fabrika gertatutako leherketek. Bati eta besteari deitu, lotan zirautenak esnarazi eta agintarien erabakien zain egon gabe hiritik alde egitea erabaki zuten, beren haurrak eta gauzarik beharrezkoenak besterik hartu gabe; horregatik dago gure erredakzioaren zati bat industriagatik atzerriratuaren egoera bitxian. Ondo dakigu nola kudeatzen dituzten agintariekin honelako hondamendiak...” Egoera argitu bezain laster beren lana erritmo normalera eramatea agintzen zuten *Lundi Matin*-ekoek.

Egun hartan bertan, Frantzia agonomo eta ekologista ezaguna den Herve Covesek ere Lubrizol aipatzen zuen Facebooken: “Pertsona bat baino gehiagok idatzi didate, Rouengo laino toxikoz kezkatuta. Nekazari batzuek diote nahikoa zorte izan dutela: haizearen norabideak libratu ditu. (...) Tamalez, ordea,

errautsuegi askoren inguruan gertatzen den bezala, beldur naiz eremu zabalak geratuko direla mugatuta elikagaiak ez diren produktuak ekoiztera. Horretaz ari zen zirrara handiena eragin didan pertsona bat: ‘Nire buruari galdezka hasi naiz ea hain maitea dudan proiektua lurperatu behar ote dudan’. Horrela mintzatu zait berrikitan antzinako haziak, landareak eta fruituak ekoizteko proiektu bati ekin dion nekazari gazte bat”.

Irailaren 26an Jacques Chirac hil zela jakin zuen mundu guztiak eta horren inguruan hedabideek aho batez eragin-dako zalapartak estali zuen egun berean goizaldeko 05:15etatik eztanda eginda kiskaltzen ari zen Lubrizol fabrikaren hondamendia. Lubrizol multinazional amerikarraren –Warren Buffet oligarka famatuaren jabegoan dago– Rouengo usinak autoentzako lubrifikatzaileak ekoizten ditu, 14 hektarea hartzen duten instalazioetan, hiriko etxebizitzetatik oso hurbil.

Lubrizol arrisku kimiko berezia daukala adierazten duen *Seveso* zuzendarauan sartzen da, 2012tik *Seveso goikoan*, arrisku handienekoen artean. Euskal Autonomia Elkartearen konparatzean, 42 enpresa daude zerrenda horretan, 29 *Seveso goikoan*. Lubrizolen biltegietan 5.000 tona gai kimiko arriskutsu zeuden leherketak abiatu zirenean, soilik horrelakoetan entzuten diren eta kezka eragiten duten izenak daramatenak.

Baina, gainera, Lubrizolen garrak ondoko Normandie Logistic konpainiara

hedatu ziren eta agintariekin honek gorde-ta zeuzkan gai kimikoen zerrenda zabaldututenean oharatu ziren asko Rouengo kokaleku horretan ez zegoela *Seveso* bat baizik eta bi, orotara ia 10.000 tona gai kimiko arriskutsu zeuzkatenak.

Gaueko leherketa eta gar handiek eta goizalbatik hiriaren zerua estaltzen zuen ke beltzak ikaratuta, asko izan ziren *Lundi Matin*-eko erredaktoreak bezala irailaren 26an egun batzuetarako bederen Rouendik ihes egin zutenak. Hori, ahal zutenak; askok nahita ere bertan geratu beste biderik ez du izan, airean larrialdietarako adarra entzun eta smartphonez agintarien oharak irakurri: ez irten etxetik, itxi leihoak, eskolak etenda daude...

ARRISKUAK HANDITU, KONTROLAK TXIKITU

Lubrizolen kiskaltzeak eragin zuen 20 kilometro luze eta 5 kilometro zabaleko ke lanbrotsu beltz, zikin eta eranskorra, ordu gutxitan haizeak eraman zuena Belgikako mugetaraino. Goizean bertan jardineko edo baratza muturren bat zuenak beltzez tindatuta aurkitu zituen landareak bezala tresnak, autoak edo zoru bera.

Berehala agintariekin herritarrei gomendatu zieten nork bere baratzeko produkturik ez jatea eta inguru zabaleko udalerririk askotako baserritarrei debekatu baratzkiak saltzea eta azienden esnea kooperatibei edo biltzaileei entregatzea, abereak ukuiluetan edukitzea aginduz. *Le Monde* egunkariaren

**ROUEN**

PARISTIK 80 KILOMETRORA
DAGOEN HIRIAN EZTANDA
EGIN ZUEN LUBRIZOL
USINAK IRAILAREN 26AN.
MILAKA TONA GAI KIMIKO
ARRISKUTSU ZERURATU
ZITUEN, HERRITARREN
ARTEAN KEZKA ETA
ALARMA SORTUZ.

kalkuluetan, 2.000 etxalde eta ekoizle txikiri eragin die debekuak, nekazaritza eta transformazio industria osoa kinka larrian jarritz 137.000 hektarea hartzen dituen eremu zabalean.

Herritarren begietan kutsagarriarik deigarriena olio beltzezko lirdinga baldin bazen, egunak pasa eta Lubrizol eta Normandie Logisticek biltegietan zeuzkaten produktuen zerrendak ezagutu ahala, kezka ugari dira beste pozoi arriskutsuagoez. Alde batetik, suteak airean barreiatu dituen furano eta dioksinak. Baina baita amiantoaz ere, eraikinaren atal askotan hori erabilia zelako. Hala ohartu dira suhiltzaileak berak ere behar adinako babesik gabe bidali zituztela garrei aurre egitera krisiaren lehen orduetan.

Lubrizoleko hondamendiak azalera-tu du 2008ko krisiaz geroztik fabrika

arriskutsuotan nola ugaritu diren istripuak eta aldi berean murriztu horiek saihesteko mekanismoak. 2018an Parisko gobernuak arindu egin zizkien ingurumen azterketen baldintzak *Seveso* fabrikaren jabeek eta Rouengoari primeran etorri zitzaizkion: kontrolatu beharreko segurtasun perimetroa murriztu zaio eta, batik bat, ingurumen azterketa berririk gabe bai produktu arriskutsuen kopuruak handitu eta bai instalazioa zabaldu ahal izan ditu, horrela saihestuz ingurumen behatzaile independenteen kontrola.

Bestalde, *Estatua argaltzeko* dinamika neoliberalen poderioz aginte publikoek gero eta inspektore gutxiago dauzkate gero eta ugariagoak eta arriskutsuagoak diren instalazioak behatzeko. Gainera, legedian egindako aldaketekin indarra kendu diete urte luzez enpresotako

arriskuen jarraipena egiten zuten mekanismo eraginkorrenei, higie eta segurtasun batzordeei, zeinetan bertako langile sindikatuek protagonismoa baitzeukaten. Enpresek ekoizten eta pila-tzen dituzten produktuez informazioak ezkutatzeko dituztenez, faktorieta langileen osasun arazoaren azterketa da, sarritan, inguruetako herritarrek ere nozitzen duten kutsaduraren pista nagusia.

Horiei gehitu behar zaie industria honetan ere nagusitu dela produkzioaren azpi-kontratazioa, prozesurik arrisku-tsuenak sarritan ezagutza eta esperientzia gutxiako konpainia eta langile prekari-zatuen esku utziz. Rouengo hondamendia abiatu zen azpi-kontrata batek zabaltzeko lanak egiten zituen biltegi an.

Lubrizolen ispiluan begiratzea on lukete Euskal Herrian *Seveso* fabrikak dauzkaten udalerrietako jendeek. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com